# GORABIDE

Nº 249 Zk.
ABRIL DE 2016
2016KO APIRILA

DISCAPACIDAD INTELECTUAL - BIZKAIA - ADIMEN DESGAITASUNA

Compromiso


**INFORMACIÓN BBK SAIOA GORABIDE INFORMAZIOA**

**Dependencia. Servicio Gizatek.**
**Dependentzia. Gizatek zerbitzua.**
pg. 4 or.

**Reconocimiento Bilbao -CO2**
**Bilbao -CO2 aitormena**
pg. 5 or.



**La familia en la atención temprana**
**Familia arreta goiztiarran**
pg. 6 or.




# Somos centro asesor de referencia de la considerada mejor app de comunicación eficaz

# Komunikazio eraginkorreko onena hartuta dagoen app-a erreferentzia-aholku zentroa gara




## Asamblea de socias y socios: jueves 28 de abril, a las 18:30, en Azkuna Zentroa (Alhóndiga)

(detalles y orden del día, en el interior)

## Bazkideen batzarra: apirilaren 28an, osteguna, 18:30etan, Azkuna Zentroan (Alhondiga)

(zehaztasunak eta eguneko egitaraua, barruan)


GORABIDE

ASOCIACIÓN VIZCAINA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL
c/ Licenciado Poza nº 14, 2ª - 48011 Bilbao | Teléfono: 94 443 12 10 | gorabide@gorabide.com
www.gorabide.com | facebook.com/Gorabide | twitter.com/gorabide



Colabora
Laguntzen du
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Línea perforada. Cortar por aquí.

GORABIDE

ASOCIACIÓN VIZCAÍNA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL
ADIMEN EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO BIZKAIKO ELKARTEA

# CONVOCATORIA DE ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA

La Junta Directiva de GORABIDE convoca **ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA DE SOCIOS Y SOCIAS**, el jueves **28 de abril de 2016,** a las **18:30 horas**, en la **segunda planta** de **Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao**, **Plaza Arriquibar nº 4**, de Bilbao (con entradas adicionales por las calles Iparraguirre, Fernández del Campo y Alameda Rekalde), en segunda convocatoria, al ser previsible que no pueda celebrarse en la primera, que también queda convocada por este anuncio una hora antes.

## ORDEN DEL DÍA

**1. Lectura, a efectos informativos, del acta aprobada en la asamblea anterior.**

**2. Informe del presidente:**

2.1. Análisis y aprobación, en su caso, del plan de actuación de la asociación y gestión de la Junta Directiva en el año 2015.

2.2. Análisis y aprobación, en su caso, del estado financiero del año 2015.

**3. Aprobación del Plan de Actuación para el año 2016.**

3.1. Exposición por parte del presidente.

3.2. Presupuesto para el año 2016.

**4. Actualización de las cuotas para el año 2017.**

**5. Resumen, a título informativo, de actuación y gestión de:**

5.1. Lantegi Batuak.

5.2. Futubide (Fundación Tutelar Gorabide).

**6. Renovación de la Junta Directiva.**

**7. Ruegos y preguntas.**

Al finalizar la asamblea, habrá un espacio para atender las cuestiones que no hayan tenido cabida en el turno de preguntas, compartiendo una bebida.

Lerro zulatua. Ebaki hemendik.

GORABIDE

ASOCIACIÓN VIZCAÍNA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL
ADIMEN EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO BIZKAIKO ELKARTEA

# OHIKO BATZAR NAGUSIETARAKO DEIA

GORABIDEko Zuzendaritza Batzordeak **BAZKIDEEN OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO** deia egiten du. Batzarra **2016ko apirilaren 28an, osteguna, 18:30etan** izango da, **Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko bigarren solairuan**, **Plaza Arriquibar 4**, Bilbon (Iparraguirre, Fernández del Campo eta Rekalde Zumarkaletik ere sar daiteke), bigarren deialdian. Lehenengo deia ordubete lehenagorako egiten da honen bidez, baina seguru asko batzarra ezin izango da lehenengo deialdian egin.

## GAI ZERRENDA

**1. Aurreko batzarrean onartutako akta irakurtzea, informatzeko.**

**2. Presidenteak berriak ematea:**

2.1. Elkartearen 2015ko ekintza plana eta Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa aztertzea eta onartzea.

2.2. 2015ko finantza egoera aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.

**3. 2016 urterako Ekintza Plana onartzea.**

3.1. Presidentearen azalpena.

3.2. 2016rako aurrekontua.

**4. 2017 urterako kuotak eguneratzea.**

**5. Honako hauen jardunbidearen eta kudeaketaren informazioa ematea:**

5.1. Lantegi Batuak.

5.2. Futubide (Gorabide Tutoretzarako Fundazioa).

**6. Zuzendaritza-Batzordearen Berriztatzea.**

**7. Galderak eta eskaerak.**

Batzarra eta gero, galderen txandan leku izan ez duten galderez arduratzeko denbora izango da, edari bat partekatuz.

# Komunikazio eraginkorreko app baterako erreferentziazko aholku zentroa gara

## *Proloquo2Go da, tableterako programa bat, sinboloetan oinarritua dago eta komunikatzeko trebetasuna eta hizkuntza garatzeko erabiltzen da*

**Berrikuntza agendaren barruko ekimenen artean, 2012an hasi genuen komunikazio eraginkorrerako proiektuari esker, AssistiveWare enpresa holandarrak proposatu digu haien erreferentziazko zentroen taldeko kide izatea, aholkularitza emateko haien Proloquo2Go aplikazioari buruz. Komunikazio alternatiborako tresnarik onena omen da.**



*"Komunikazio eraginkorrerako programaren barruan, gure eginkizunetako bat da begiratzea zein berrikuntza teknologiko sortzen den. Horregatik, jarraipena egiten egon gara, besteak beste, iPaderako Proloquo2Go app aplikazioari. Eta horrela jakin dugu testatzeko laguntza eskatzen zutela"*, azaldu du Ismael Garzonek, programaren koordinatzaileak. *"Hasiera batean, probarako bertsio bat bidali ziguten, iraupen mugatukoa, eta Sopuertako Egoitzako erabiltzaile Albertoren tabletean instalatu genuen, praktikaren bidez ebaluatzeko"*, gogoratu du.

### Lehen aholkua

*"Eskaini diegun informazioaren balioari esker, erabilera mugatuko kode bat eman digute, horrek dakarrenarekin, duen kostu ekonomikoagatik. Eta, gainera, erreferentzia zentroa izatea proposatu digute aholkularitza emateko app-a ezagutzeko interesa duten familiei eta erakundeei"*, azpimarratu du. Gorabiderentzat, hori *"arlo horretan egiten ari garen lanerako bultzada da. Batez ere, kontuan izanik bakarrik dagoela erreferentziazko beste aholkularitza zentro bat Bartzelonan"*, adierazi du. *"Izan dugu aukera lehenengo aholkularitza saioa egiteko Ezkerraldeko Berritzeguneko terapeuta okupazional batentzat. Erakutsi genien nola funtzionatzen duen eta zein aukera eskaintzen duen, eta pozik geratu ziren"*, adierazi du.

### Beste aukera batzuk

Gorabiden garatzen ari garen komunikazio eraginkorreko programa ez da bakarrik aplikazio hori eta iPad bat. *"Nahiz eta, une honetan, konbinazio hori, ikuspuntu praktikotik, ahaltsuena iruditzen zaigun, beste batzuk ere erabiltzen ari gara, esaterako Androiderako GoTalkNow. Baina, espezializatu egin behar dugu, ez litzatekeelako jasangarria ateratzen den guztia etengabe ebaluatzen egotea"*, azaldu du Ismaelek. *"Orain dela urte betetik Vodafone Fundazioaren programa batean hartzen dugu parte, haren bidez ingurune lagunkoiagoa sortu nahi dute, desgaitasuna duten pertsonek modu autonomoan egin ditzaten eguneroko eginkizunak, Mefacilyta, aMiAlcance eta Metiqueta aplikazioen bidez"*, argitu du.

Komunikazio eraginkorrerako teknologien erabilera orokortzeari buruz galdetzean, Ismaelek aitortu du *"arinegi da horretaz hitz egiteko, oraindik horrelako tresnen pilotatze fasean gaude eta"*.

IRAKURKETA ERRAZA

2012. urtetik, komunikatzeko arazoa duten erabiltzaileekin egiten dugu lan. Harrezkero, teknologia asko aztertu ditugu. Orain, lortu dugu aholkularitza eman ahal izatea tableterako dagoen komunikazio alternatiboko aplikaziorik onenari buruz.

# Somos centro asesor de referencia sobre una aplicación de comunicación eficaz

## *Se trata de Proloquo2Go, un programa para tablet que se basa en símbolos para promover el desarrollo de las habilidades comunicativas y del lenguaje*



LECTURA FÁCIL

Desde el año 2012, trabajamos con las personas usuarias que tienen dificultad para comunicarse. Durante este tiempo, hemos estudiado muchas tecnologías. Ahora, hemos conseguido poder asesorar sobre la mejor aplicación de comunicación alternativa que hay para tablet.

**Gracias al proyecto de comunicación eficaz que iniciamos en 2012 como una de las iniciativas de nuestra agenda de innovación, la empresa holandesa AssistiveWare nos ha propuesto formar parte de su equipo de centros de referencia para dar asesoramiento sobre su aplicación Proloquo2Go, considerada la mejor herramienta de comunicación alternativa.**

*"Dentro de nuestro programa de comunicación eficaz, una de las labores que realizamos es la vigilancia de las novedades tecnológicas que surgen. De ese modo, hemos estado haciendo seguimiento, entre otras, de la app Proloquo2Go para iPad. Y así nos enteramos de que pedían colaboración para testarla"*, explica Ismael Garzón, coordinador del programa. *"En un primer momento, nos enviaron una versión de prueba de duración determinada, que instalamos en el tablet de Alberto, un usuario de la Residencia Sopuerta, para poder evaluarla en la práctica"*, recuerda.

### Primer asesoramiento

*"Gracias al valor de la información que les trasladamos, nos han facilitado un código de uso ilimitado, con lo que ello supone, dado su coste económico. Y, además, nos han propuesto ser centro de referencia para prestar asesoramiento a familias o entidades que estén interesadas en conocer la app"*, destaca. Para Gorabide, esto *"es un impulso al trabajo que estamos realizando en este campo. Sobre todo, teniendo en cuenta que sólo hay otro centro asesor de referencia en Barcelona"*, reconoce. *"Ya hemos tenido ocasión de realizar la primera sesión de asesoramiento para una terapeuta ocupacional del Berritzegune de Margen Izquierda. Le mostramos el funcionamiento de la app y las posibilidades que ofrece, y quedó muy satisfecha"*, señala.

### Otras opciones

Pero el programa de comunicación eficaz que estamos desarrollando en Gorabide no se limita a esta aplicación ni al iPad. *"Aunque, ahora mismo, esa combinación nos parece la más potente desde un punto de vista práctico, también estamos utilizando otras como GoTalkNow para Android. Pero hay que especializarse, porque no sería sostenible estar evaluando constantemente todo lo que sale"*, explica Ismael. *"También formamos parte desde hace un año y medio del programa con el que la Fundación Vodafone busca crear un entorno colaborativo para que las personas con discapacidad puedan realizar de manera autónoma actividades de la vida cotidiana, a través de las aplicaciones Mefacilyta, aMiAlcance y Metiqueta"*, describe.

Respecto a la posible generalización interna del uso de tecnologías de comunicación eficaz, Ismael reconoce que *"es prematuro hablar de eso, ya que estamos en fase de pilotaje"*.

## información bbk SAIOA GORABIDE informazioa

# La importancia de tener valorada la dependencia

Para las personas con discapacidad intelectual, que aún no tengan valorada la dependencia, hay que recordar que esta valoración tiene como objetivo posibilitar servicios y prestaciones adecuadas a las personas dependientes. Para las personas con discapacidad intelectual que trabajan en empleo protegido o empleo ordinario es muy conveniente tener valorada la situación de dependencia de cara a la utilización de servicios específicos para personas con discapacidad intelectual (por ejemplo, estancias temporales en residencia). Tener valorada la situación de dependencia es un requisito imprescindible para esos casos. Así mismo, para las personas que tengan un grado de discapacidad igual o superior al 75%, es necesario tener reconocido cualquier grado de dependencia para poder cobrar el complemento de ayuda de tercera persona en su pensión no contributiva o en la prestación familiar por hijo a cargo.

**Discapacidad 75% + Dependencia = Complemento en prestación familiar o Pensión no contributiva.**

# Mendekotasun-balorazioa: aren garrantzia

Adimen desgaitasuna duten pertsonei, mendekotasunaren balorazioa egin gabe badute, gogorarazi behar zaie balorazio horren helburua mendekotasuna duten pertsonei zerbitzu eta prestakuntza egokiak eskaintzea dela. Adimen desgaitasuna duten pertsona guztientzat, baita enplegu babestuan edo arruntean lan egiten dutenentzat ere, ezinbestekoa da mendekotasun egoeraren balorazioa eginda izatea, adimen desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzu espezifikoak erabili ahal izateko (adibidez: aldi baterako egonaldiak edo egonaldi iraunkorrak egoitzan, etxez etxeko laguntza zerbitzua, etab.). Mendekotasun egoeraren balorazioa eginda izatea ezinbesteko baldintza da kasu horietan. Era berean, %75eko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonentzat beharrezkoa da mendekotasun graduren bat aitortua izatea, hirugarren pertsonaren laguntzarako osagarria kobratu ahal izateko kotizazio gabeko pentsioan edo seme/alaba mendeko izateagatiko prestazioan.

**%75eko desgaitasuna + Mendekotasuna = Osagarria familiako prestazioan edo Kotizazio gabeko pentsioan.**

# Servicio foral Gizatek

Gizatek es un servicio público de la Diputación Foral de Bizkaia que orienta a las personas a las que se les ha reconocido una discapacidad o dependencia en la compra de productos de apoyo tales como órtesis y prótesis, mobiliario y adaptaciones para viviendas y otros inmuebles, productos de apoyo para la comunicación y la información, productos de apoyo para la movilidad personal, etc. El importe de la subvención se calcula teniendo en cuenta la capacidad de gasto diaria de la persona solicitante. En cualquier caso, la cuantía de la subvención siempre garantiza al menos el 10% del importe máximo subvencionable y nunca sobrepasa los 3.000 euros.

# Gizatek foru zerbitzua

Gizatek Bizkaiko Foru Aldundiko zerbitzu publiko bat da, bere xedea orientazioa ematea da desgaitasun edo mendekotasunen bat aitortua duten pertsonei produktuak erosterakoan, hala nola, ortesiak eta protesiak, etxebizitzetarako altzari eta egokitzapenak eta bestelako higiezinak, komunikazio eta informaziorako laguntza-produktuak, mugikortasun pertsonalerako laguntza produktuak, etab. Diru-laguntza kopururen kalkulua eskatzen duen pertsonaren eguneroko gastua kontuan izanda egiten da. Edozein kasutan, diru-laguntza kopuruak bermatu egin beharko du, gutxienez, gehienezko diru-laguntzaren %10 eta ezin da 3.000 eurotik gorakoa izan.

**Servicio BBK SAIOA GORABIDE Zerbitzua**

**Tel. 94 453 90 86**

# Recibimos el reconocimiento de Bilbao a nuestro compromiso medioambiental

## *Un grupo de la Residencia Plazakola, pionera en ese tema, recogió la distinción 'Hacia una estrategia baja en carbono' de manos del alcalde Juan Mari Aburto*

El Ayuntamiento de Bilbao nos ha otorgado la distinción de entidad comprometida con la defensa de la sostenibilidad y el medio ambiente por haber participado en el programa 'Hacia una estrategia baja en carbono en Bilbao', impulsada por la sociedad municipal Bilbao Ekintza y haber medido nuestra huella de carbono de cara a reducir nuestro impacto medioambiental.



En el acto de entrega, celebrado en el Salón Árabe del consistorio bilbaino, el alcalde Juan Mari Aburto entregó una placa y un tótem, ambos de madera ecológica y sostenible, a un grupo de nuestra Residencia Plazakola, que es el centro que actúa como elemento tractor en materia medioambiental en Gorabide.

Este reconocimiento supone un espaldarazo a la política medioambiental iniciada en nuestra asociación en 2015, dentro del Plan de Compromiso con la Sociedad, que se sustenta en acciones de reciclaje, reutilización de materiales, consumo responsable de recursos y productos, además de sensibilización y divulgación.

LECTURA FÁCIL

El Ayuntamiento de Bilbao nos ha dado un premio porque nos preocupamos por cuidar el medioambiente. Lo ha recogido un grupo de la Residencia Plazakola, porque allí están muy implicados con este tema.

# Gure ingurumen-konpromisorako Bilboko aitorpena jaso dugu

## *Plazakola Egoitzako talde batek, arlo horretan aitzindariak, 'Karbono gutxiko estrategia baterantz' saria jaso zuen Juan Mari Aburto alkatearen eskutik*

Bilboko Udalak iraunkortasun eta ingurumenaren aldeko konpromisoa duen erakundearen saria eman digu, Bilbao Ekintza udal elkarteak sustatutako 'Karbono gutxiko estrategia baterantz' izeneko programan parte hartzeagatik eta gure karbono aztarna neurtzeagatik, ingurumen-eragina gutxitzeko.

Saria emateko ekitaldia Bilboko Udaleko Areto arabiarrean ospatu zen eta Juan Mari Aburtok gure Plazakola Egoitzako talde bati plaka eta totem bat eman zizkion, biak egur ekologiko eta iraunkorrez egindakoak, zentro hori aitzindaria da Gorabiden, ingurumenaren arloan.

Aitormen hori onespen handia da gure elkarteak, 2015ean Gizartearekiko Konpromisoaren barruan hasitako ingurumen politikarentzat, izan ere hainbat ekintza ditu oinarri: birziklatzea, materialen berrerabilera, baliabide eta produktuen kontsumo arduratsua, eta sentsibilizazioa eta dibulgazioa.

IRAKURKETA ERRAZA

Bilboko Udalak saria eman digu ingurumena zaintzeko ardura hartzen dugulako. Gure Plazakola Egoitzako talde batek hartu du, han oso inplikaturik daudelako gai horrekin.

# “La atención temprana que recibimos no sólo ayuda al niño, también a la familia”

## *Una familia usuaria de nuestro Servicio de Atención Temprana describe las claves de un apoyo que va más allá de la acción terapéutica infantil*

**Xabier tiene 5 años y acude a atención temprana en Gorabide desde hace algo más de tres. Pero no sólo él, sino que su padre Txus y su madre Maitane, también. Porque ofrecemos tratamiento, asesoramiento y orientación para la familia, en tres ámbitos: psicológico, fisioterapéutico y social.**

En opinión de Txus, además del tratamiento infantil, *“se da mucha información a los padres de cómo se tiene que actuar sobre la terapia y sobre el crío”. “No dudo de la terapia que hacéis con el niño, que por supuesto que le ayuda, pero creo que nos ayudáis más a nosotros. Es una atención también para los padres”*, destaca Maitane.

Aparte de ese apoyo, Maitane valora la ayuda a la hora de *“coordinar con las demás personas que tratan con el niño: bien sea en el colegio, bien sean médicos...”. “Y también en marcar los pasos a seguir; viendo en qué momento le podría hacer falta cada cosa”*, añade Txus. *“Es una pena que este tipo de enfoque centrado en la familia no se extienda a otros ámbitos en los que atienden a nuestro hijo”*, explica Maitane.

*Por suerte, hemos caído en unas buenas manos. Nosotros solos, si lo hubiésemos hecho, nos habría costado muchísimo más”,* concluyen.




# “Jasotzen dugun arreta goiztiarrak haurrari ez ezik, familiari ere laguntzen dio”

## *Gure Arreta Goiztiarreko Zerbitzua erabiltzen duen familia batek deskribatuko ditu haurrentzako terapia hutsa baino gehiago den laguntzaren gakoak*

**Xabierrek 5 urte ditu eta Gorabideko arreta goiztiarrera joaten da, orain dela hiru urte baino lehentxoagotik. Baina ez bera bakarrik, bere aita, Txus, eta bere ama, Maitane, ere bai. Familiarentzako tratamendua, aholkularitza eta orientazioa eskaintzen dugulako, hiru arlo hauek kontuan izanik: psikologikoa, fisioterapeutikoa eta gizartekoa.**

Txusek dioenez, haur tratamenduaz gain *“informazio asko ematen zaie gurasoei, izan beharreko jokabideari, terapiari eta haurrari buruz”. “Ez dut zalantzan jartzen umearekin egiten duzuen terapia, jakina laguntzen diola, baina uste dut guri gehiago laguntzen diguzuela. Gurasoentzako arreta ere bada”* azpimarratu du Maitanek.

Babes horretaz gain, Maitanek bestelako laguntza ere balioesten du *“umearekin tratua duten beste pertsonekin koordinatzerakoan: bai ikastetxean, bai medikuekin...”. “Eta jarraibideak zehazterakoan, aurreikusiz une bakoitzean zer beharko duen”*, gehitu du Txusek. *“Pena da familian zentratutako ikuspegi horiek ez hedatzea gure semea artatzen duten beste esparru batzuetara”*, azaldu du Maitanek.

“*Zorionez, esku onetan gaude. Bakarrik, egitea lortu bagenu, askoz gehiago kostatuko zitzaigun”*, esan dute.

# Nuevo taller para hermanos y hermanas, el 29 de abril

El Área de Intervención Familiar de Gorabide organiza un nuevo taller para hermanos y hermanas de 5 a 15 años, con el objetivo de involucrar a esa parte de la familia en la realidad de las personas con discapacidad intelectual. Para ello, se generará un espacio relajado en el que podrán compartir con iguales cuestiones que pueden no saber trasladar al resto de la familia, y recibirán información adaptada a sus necesidades.

De este modo, a través de diferentes actividades adaptadas a cada edad, se les ayuda a expresar sus necesidades y preocupaciones, o las dudas e incertidumbres que puede generar la relación con su hermana o hermano con discapacidad intelectual, y también pueden escuchar experiencias similares.

### Empatía y conocimiento

El resultado obtenido en los talleres realizados hasta ahora, en palabras de una familia participante, es que *“son más empáticos para entender y atender mejor a su hermana. Y los padres podemos conocer cómo viven su experiencia, y cuál puede ser su función”*.

**Información e inscripciones:**
Diana Cabezas
dianacabezas@gorabide.com
Tel. 94 453 90 86

# Neba-arrebentzako lantegi berria, apirilaren 29an

Gorabideko Familian esku hartzeko arloak beste tailer bat antolatu du 5 urtetik 15era bitarteko neba-arrebentzat, helburua da familiaren parte hori inplikatzea adimen desgaitasuna duten pertsonen errealitatean. Horretarako, espazio lasai bat sortuko da familiako beste kideei adierazi ezineko kontuak berdinen artean parteka ditzaten, eta haien beharretara egokitutako informazioa jasoko dute.

Horrela, adin bakoitzera egokitutako jarduera desberdinen bidez, lagundu egiten zaie haien beharrak eta kezkak adierazten, edo adimen desgaitasuna duen neba/arrebarekiko harremanak sor ditzakeen zalantzak eta ziurgabetasunak aditzera ematen, eta antzeko esperientziak ere entzun ditzakete.

### Enpatia eta ezagutza

Orain arte egindako tailerretan lortutako emaitza, parte hartzen duen familia baten hitzetan: “haien arrebari ulertzeko eta arreta hobea emateko enpatikoagoak dira. Eta gurasoek jakin dezakegu nola bizi duten haien esperientzia, eta zein izan daitekeen haien funtzioa”.

**Informazioa eta izena ematea:**
Diana Cabezas
dianacabezas@gorabide.com
Tel. 94 453 90 86

## LABURRAK BREVES

### Cinco turnos de vacaciones

En la semana de pascua, 74 personas usuarias han disfrutado de cinco turnos de vacaciones gracias al apoyo de 18 personas voluntarias, dentro de los programas de Plena Inclusión subvencionados por el Imserso.

### Bost txanda oporretarako

Pazko astean, 74 pertsona erabiltzailek oporretako bost txanda izan dituzte, 18 boluntarioren laguntzari esker, Imsersok diruz laguntzen dituen Erabateko Inklusioko programen barruan.

### Reunión con todos los grupos de las Juntas Generales

Nuestro presidente Hugo Baroja y el tesorero de la asociación Germán Etxebarria, acompañados del gerente Pablo González, fueron recibidos por los grupos junteros de todos los partidos políticos con representación en las Juntas Generales de Bizkaia, para conocer los detalles de la negociación del convenio colectivo propio de Gorabide.

### Batzar Nagusietako talde guztiekin bilduta

Hugo Baroja gure presidentea eta German Etxebarria elkarteko diruzaina, Pablo González gerentearekin batera, hartu zituzten Bizkaiko Batzar Nagusietan ordezkaritza duten alderdi politiko guztietako batzarkideek, Gorabideren hitzarmen kolektibo propioaren negoziazioari buruzko zehaztasunak ezagutzeko.

GORABIDE

ABRIL DE 2016 | Nº 249 Zk | 2016KO APIRILA

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a dar apoyo a las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y a sus familias, con la misión de mejorar su calidad de vida desde un compromiso ético y promoviendo una sociedad más justa y solidaria. Entidad promotora de Lantegi Batuak (1983) y de Futubide (1991).

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, eta helburu du Bizkaian adimen desgaitasuna dutenen eta beren familiartekoen bizi-kalitatea hobetzea, konpromiso etikoa oinarri hartuta, eta gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa sustatzen. Lantegi Batuaken (1983) eta Futubideren (1991) entitate sustatzailea.

## LA FOTO ARGAZKIA




**Varias de nuestras familias disfrutaron de la ópera infantil 'Txano Zuritxu' de ABAO Txiki, invitadas por BBK.**

**Gure familia batzuek ABAO Txikiren 'Txano Zuritxu' haur operarekin gozatu ahal izan zuten, BBK-k gonbidaturik.**

# agenda abril apirila

## Sesión sobre la ética del cuidado

Comité de Ética de Gorabide

## Arduraren etikari buruzko saioa

Gorabideko Etika Batzordea

### Autogestores - Autogestoreak

- Lunes 4 astelehena, 18:00, Los Nuevos.
- Martes 5 asteartea, 18:00, Gure Ahotsa + Jóvenes
- Miércoles 6 asteazkena, 18:00, Los Veteranos + Los Elegantes.

### Grupos de familias

- Jueves 21 osteguna, 18:00, Adultos-Heldutakoak +Hermanos/as y cuñados/as-Anai/arrebak eta koinatak.
- Sábado 23 larunbata, 11:00, Escolares-Eskolakoak + Hijas con síndrome de Rett sindrome nesketakoak.
- Lunes 25 astelehena, 10:30, Adolescentes-Nerabeetakoak +Jóvenes-Gazteak.

## AGRUPACIONES ELKARTEAK

| Agrupación | Tipo | Lugar | Día / Eguna | Hora / Ordua |
|---|---|---|---|---|
| BUSTURIALDEA | Comisión Komisio | Kultur Etxea. Foru Plaza - Gernika | 13 miércoles asteazkena | 18:30 |
| DEUSTO-SAN IGNACIO | Junta Batzorde | Club Solas-Etxe. Luzarra, 24 - Deusto | 5 martes asteartea | 19:30 |
| ERMUA | Junta Batzorde | Aldapa, 2-bajo A/etxabe A - Ermua | 4 lunes astelehena | 19:30 |
| MUNGIALDEA | Comisión Komisio | Atxurizubi, 12 - Mungia | 5 martes asteartea | 20:00 |
| SANTURTZI | Comisión Komisio | Sabino Arana, 20-22 - Santurtzi | 27 miércoles asteazkena | 19:00 |

más en... www.gorabide.com/agenda ...gehiago

D.L./L.G. BI-394-2014